

DURANGOKO MARTXANTERAK

Oroitzapen goxoko eta emakume izeneko lanbide gogor baten aitormena

 JENDARTEA / Nerea Goti

Durangoko Andra Mari elizpeak azken urteotan galdua zuen irudi bat berreskuratu du berriki, eta harekin herriko eta inguruko belaunaldi ezberdinen oroitzapenak piztu ditu. Boni Macarron, herrian izan zen azken martxanteraren horma-irudia jarri dute elizpean. Bera oroitzearekin batera, beraren eta aurretik izan ziren saltzaile haien lanbidea aitortu eta familia askorentzat emakumeon lana izan zen sostengua ere gogoratu nahi izan du Udala-ren ekimen batek.

Merkatuaren jarduerarekin lotuta, lehenengo martxanterek barazkiak eta bestelako jaki batzuk saltzen zituzten; batzuek gozokiak saltzen jarraitu zuten betiko lanbidean. Orain, haietako baten horma-irudia dago elizpean, bera eta Durangon izan ziren beste martxanterak guztiak gogoratzeko.

Denborak gauza batzuk eramaten ditu eta berri batzuk ekartzen ditu, baina joandako batzuk ezin dira ahanzturan utzi, herri baten memoriaren zati direlako. Udal Gobernuako ordezkariak nabarmendu zuten, emakume horiek komunitateko erreferenteetako bat izan dira.

Gaur egun edonon aurki daiteke goxoki denda bat, baina duela urte batzuk arte goxokiak kaleko postuetan saltzen ziren, gehienetan emakumeen kargura zeuden saltokietan. Ordu luzeak kalean, saltzaile. Boniren kasuan, sei hamarkadatan baino gehiagotan jarri zuen postua egunero, askotan hamabi orduko jardunak egiten. Erregaliza, pipak, patata frijituak, *gusanitoak*... Postu

Postu ibiltarietan saltzaile ibili ziren emakume haien oroimena bizirik mantentzeko, Durangoko Andra Mari elizpeak hamarkadetan zehar bertan ibili zen azken martxanteraren irudia berreskuratu du. Boni zuen izena eta gozokiak saltzen zituen, baina gehiago ere bazen, herri baten memoriaren figura kutunetako baten azkena.

hartan ohiko haurren jostailu txiki horiek ere aurki zitezkeen: Rubiken kuboak, yo-yoak, tronpak... Bere postu hark kolore bizi eta distiratsuz jantzi zuen Andra Mari elizpea urte askotan. Asteburuko paga jaso ostean, elizako ate ondoan zain zegoen Bonik kudeatzen

zuen gozokien Eden hura.

Umeen eta hain umeak ez zirenen geltoki ere izan zen, Goienkaleko giroan zebilen gazte batek baino gehiagok handik egiten zuen buelta tri-pazorriak egitean. Txokolatzeko opilen bat poltsiko askoren mailara zegoen, pintxoak edo

ogitartekoak erosteko beste ez zegoenean.

Boniren irudia herrira itzuli da orain. Arkupean saltzaile hamarkadak egin zituen azken martxanterak izan zen, baina gehiago izan ziren aurretik. Omenaldiaren harira, Martina, Tere, Francisca, Trini, Sebastiana eta San Faustoko Mertxe gogoratu dituzte Durangon. Lanbideak zeukan beste atal bat ere gogoratu da, emakume izena zuen lanbidea baitzen, emakumezkoentzako lan egiteko aukerak askoz mugatua- goak ziren garaietan.

Juanan Bueno Durangoko Hiritartasun arloko zinegotziaren ustez, emakume horien lana balioan ipini behar zen, eta oroitzapena bizirik

Irudian, Boni Macarron, Durangok izan duen azken martxanterak, bere postuan.
Txelu ANGOITIA



mantendu. «Durangar belau-
naldi ezberdinen artean oso
maitatuak» izateaz gain, «as-
kotan oso baldintza gogorre-
tan egungo Durango egiten la-
gundu duten klase herrikoiko
langile horien» figura azpima-
rratu behar zela uste du.

Helburu horiekin, EH Bilduk
proposamen bat egin zuen au-
rreko legealdian, oposizioan
zegoenean. Egun Udal Gober-
nuaren buruan dela, indar su-
biranistak ideia berrartu eta
senitartekoekin bildu zen eki-
menaren berri emateko.

ITZAL HANDIKO FIGURA

Bonik itzal handia utzi du he-
rrian, bildu diren testigantza
askoren arabera. «Oso emaku-
me berezia izan zen, oso mai-
tatua herrian. Pentsa urte pila
batean egon zela bere postu-
txoan eta hemen mundu guz-
tiak ezagutzen eta estimatzen
zuela», azaldu du Juanan Bue-
nok.

Kontatu duenez, haur txiki
baten begiekin ikusita, lilura-
garria zen postu hark eskain-
tzen zuen guztia, baina ez dira
umeen oroitzapenak soilik.
«Egia da oso pertsona kutuna»
izan zela eta horren proba da,
adibide gisa aipatzen duenez,
askotan haur txikiei esaten zi-
tzaiela «galtzen bazara Boni-
ren saltokira joan eta bertan
itxaron gu azaldu arte».

Boni Macarron Durangoko
Alde Zaharrean jaio eta bertan
bizi izan zen hil arte.

Amarekin lehenengo, eta Ra-
mon seme txikiarekin beran-
duago, sei hamarkada baino
gehiagotan zehar, urteko 365
egunetan jartzen zuen postu-
txoa elizpean. Etxeko beste ki-
de batzuen laguntza ere izaten
zuen, ahizpena, Juan Mari se-
mearena eta emaztearena...
baina urtean zehar, egunero,
falta barik 9.00etan jartzen



Goian, martxanteren
postuak Durangon.
Ondoan, Boni gazteago,
lore sorta batekin.
Ricardo DOLIWA/GEREDIAGA
ELKARTEA-Txelu ANGOITIA

zuen postua eta gaueko
21.00etan itzultzen zen gehie-
netan etxera. Semeak konta-
tzen duenez, askotan bertan
bazkaltzen zuen postua jaso-
tzen eta berriz jartzen ez ibil-
tzearren.

Elizpetik gertu dagoen Arte-
kalen bizi zen. Handik gurd-
txoa hartu eta lanera joaten
zen, gauean bueltako bidea
egin arte. Ez zen bizimodu
erraza, eguna ematen bai-
tzuen han, hotz ala bero han-
dia egin arren. Postu finkoa
jartzen 11 urterekin hasi zen,

eta ia 82 urte bete arte egon
zela gogoratu dute etxekoek.

Ordu asko ziren kalean, «eta
lehengoak negu gogorak zi-
ren», gogorarazi du Juan Ma-
rik, baina osasunez indartsua
zela gaineratu du. «Ez zen
inoiz gaixorik jartzen, berak
esaten zidan 'elizpean dabilen
haizeak zaintzen nau'».


ELIZPEA BERE ETXEA ZEN

Bizimodu gogorra izan arren
amak ez zuela inoiz beste lan
bat izateko nahia aipatu na-
barmendu du. «Bera konforme

zegoen, ez zuen inoiz nahi
izan beste gauza bat, postua
bere bizitza zen, txikitan hasi
zen, bizitza osoa eman zuen
postuan eta elizpea bere etxe
modukoa zen».

Kontuan izan behar da,
erantsi duenez, «mundu guz-
tia ezagutzen zuela, bata eta
bestearekin hitz egiten zuela,
postutik pasatzean gelditzen
ziren berarekin hitz egiteko...
amak gozatu egiten zuen eliz-
pean, oso zoriontsua izan da
bertan».

Omenaldi ekitaldiaren oste-
an Juan Mari Boniren semea-
rekin hitz egin zuen GAUR8k.
Badalonan bizi da orain du-
rangarra. Penaz dio osasun
egoeragatik ezin izan zituela
etxekoak ekitaldira ekarri. An-
dra Mari elizpera itzultzeak,
aldiz, amaren oroitzapen asko
eta emozio handia ekarri ziz-
kiola onartu du. «Ama mundu
guztiak maite zuen, oso atse-
gina zen, jendeari laguntze-



**Ez zuten bizimodu erraza izan postuaren atzean
eguneko ordu gehienak eman behar zituzten
saltzaileek, baina familia askoren sostengua
izan zen lanbide hori**

**Boniren etxekoek gogoratu dutenez,
durangarrak urteko 365 egunetan jartzen zuen
saltokia elizpean, askotan 12 orduko lanaldiak
eginez, baina «zoriontsua zen han»**

koa», nabarmendu du duran-garrak. Duela urte batzuk jaie-tako txupinera izendatu zute-la gogora ekarri du. Hasieran lotsa eta beldur puntu batekin hartu zuen proposamena, bai-na Juan Marik dioenez, ikusi ahal izan zuen jendeak zenbat estimatzen zuen.

Amak jendearekin erlazio-natzeko zeukan dohaina aipa-tzen duenean azpimarratzen du martxantera guztiek antze-ko izaera bat izaten zutela, zeukaten lanbidean jendeare-kin harremanetan egon behar baitziren etengabe kalean, eta horretara dedikatzeko izaera berezi bat izan behar dela gai-neratu du.

Amak hurrez inguratuta eman zuela bizitza osoa eta txantxekin ez zela haserretzen aipatu du Juan Marik. «Boni, denetik daukazunez, dilista zaporezko txikleak ekartzea nahi dugu», esaten omen zion ume kuadrilla batek. «Bai zera, eta indabazkoak ere bai», eran-



tzuten omen zien, gogoratzen du Juan Marik.


Hain hurbileko pertsona zen, ezen udaltzainek galduta zebilen haur bat aurkitu eta Bonik gurasoak ezagutzen zi-tuenez, haurra berarekin utzi baitzuten haren bila iritsi zi-ren arte. «Hori askotan gertatu

Boni Makarronen
senitartekoak, haren
omenaldi ekitaldian.
Monika DEL VALLE | FOKU

zitzaion, haurra berarekin utzi eta ondoan edukitzen zuen ai-ta-amak azaldu arte. Eroskete-kin pasatzen zen jende askok ere poltsak postuan uzten zi-tuen eta bueltan hartu... kon-fiantzazko pertsona bat zen jende askorentzat», kontatu du Juan Marik.

Gozokiak saltzen emandako urte luze horietan postuan fal-ta ezin zen produkturik ba ote zegoen galdetuta, Juan Marik argi dauka Facundo pipak zire-la salmentetan izar. «Pipen poltsak eta poltsak zituen, txi-kientzat *aspitoak* eta *negritos* txokolatezko opil asko ere salt-zen zituen, bazooka txikleak, coyac txupatxusak, erregali-zak... horiek guztiak ezin ziren falta postuan», erantzun du, belaunaldi ezberdinen histo-riaren zati ere badiren produk-tuak zerrendatuz. Pertsona ba-ten adina bera kalkula daiteke txikitan gustuko izandako go-zokiaren arabera.

Etxean gorde dituzten oroi-tzapenen artean amak erabil-tzen zuen tokilla aipatzen du lehenik. Garai batean gaztaina erreak ere saltzen zituzten, eta erretzeko erabiltzen zuten tresna Badalonan dago orain. «Bilobentzako gaztainak egi-ten ditut Durangon egiten ge-nituen bezala».



Merkatua, pasa den mendeko 30eko hamarkadan. German Zorraquin-GEREDIAGA ELKARTEA

«EZ SARTU ELIZAN» OIHU EGIN ZUEN EGUNA

Andra Mari elizpean saltzaile bizitza osoa eman zuen Boni Macarronek gertu-gertutik ezagutu zuen 1937ko bonbardaketa. Etxean bazekiten martxoaren 31 hartan neskato bat baino ez zen Boni bertan zegoela, bere postuan. Francoren armadak agindutako erasoak 337 hildako eragin zuen Durangon. Merkatu eguna zen eta eliza eta arkupea bonben jomuga izan ziren. Meza hasi zen une hartan.

Bonbardaketaren harira, Juan Marik gogoratzen du postuan ama bakarrik zegoela sarraskia izan zenean. Txikitan Boni amarekin hasi zen postuan saltzen, baina ama gaixotzean, bera egin zen saltokiaren kargu. Etxean bazekiten egun hartan ama bertan izan zela, baina urte askoren bueltan jakin zuten egun harekin lotutako pasadizoa. GAUR8ri kontatu zionez, duela ez hainbeste urte, amari laguntzen ari zen egun batean elizatik irten zen emakume bat amaren

postura hurbildu zen. Andrak Boni agurtu eta Juan Mari nor zen galdetu zion. «Semea nintzela esan zionean, emakumeak zera esan zidan: 'zure amari esker nago bizirik'». «Kontatu zidan bonbardaketa izan zenean, elizara zihoazela korrika, 'zure amak elizan ez sartzeko oihu egin zigun, bonbak bertan jaurtiko zituztela ohartarazi zigun'», aipatzen du Juan Marik amak argi ikusi zuenaren inguruan. Suposatu zuen eliza bonbardatuko zutela eta handik ihes egin zuen. «Oso grabatuta daukat hori», azpimarratu du semeak. «Amak jende askori lagundu zion». Gogora etorri zaio behin arkupean ezezagun bati behar zuen dirua utzi ziola jakin zuenean Extremadurara itzuli behar zuela baina bidaia egiteko diru nahikorik ez zeukala. «Dirua eta ogitartekoa eman zizkion, eta handik denbora batera gizonak dirua itzuli zion eta opari bat eman zion... horrelakoa zen ama».